



Nokia 2760aren

erabiltzailearen
eskuliburua

NOKIA

Nokia 2760ren erabiltzailearen eskuliburua

9203340

1. edizioa ES

CE 0434 ADOSTASUN-DEKLARAZIOA Honen bidez, NOKIA CORPORATIONek adierazten du RM-258 produktuak 1999/5/EE zuzentarauko oinarritzko baldintzak eta aplikatu edo eskatu beharreko gainerako xedapenak betetzen dituela. Adostasun-deklarazioaren kopia bat dago helbide honetan:http://www.nokia.com/phones/declaration_of_conformity/. © 2007 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Nokia, Nokia Connecting People, Xpress-on eta Navi markak Nokia Corporation-en merkataritzako markak edo marka erregistratuak dira. Nokia tune Nokia Corporation-ek erregistratutako doinua da. Hemen aipatzen diren gainerako produktuak eta enpresen izenak haien jabeen marka komertzialak edo erregistratuak izan daitezke.

Debekatuta dago dokumentu osoa edo zati bat inolako eratan erreproduzitzea, transferitzea, banatzea edo jasotzea, Nokiaren alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe. US Patent No 5818437 and other pending patents. T9 text input software Copyright© 1997-2007.Tegic Communications, Inc. Eskubide guztiak erreserbatuta.



Includes RSA BSAFE cryptographic or security protocol software from RSA Security.



Java and all Java-based marks are trademarks or registered trademarks of Sun Microsystems, Inc.



This product is licensed under the MPEG-4 Visual Patent Portfolio License (i) for personal and noncommercial use in connection with information which has been encoded in compliance with the MPEG-4 Visual Standard by a consumer engaged in a personal and noncommercial activity and (ii) for use in connection with MPEG-4 video provided by a licensed video provider. No license is granted or shall be implied for any other use. Additional information, including that related to promotional, internal, and commercial uses, may be obtained from MPEG LA, LLC. See <http://www.mpegla.com>.

Produktu honek Ikusizko MPEG-4 Patenteen Zorroaren Lizentzia izan behar du, (i) kontsumitzaile batek helburu ez-komertzialarekin eta pertsonalarekin Ikusizko MPEG-4 Estandarraren arabera kodetutako informazioarekin lotutako erabilera pertsonal eta ez-komertzialerako, (ii) bideo-irtenbideen hornitzaile baimendu batek eskainitako MPEG-4 bideoarekin lotutako erabilera bateraturako. Ez da barne hartzen ez eta inplizituki hartzen ere beste zerbaiterako erabiltzeko lizentziarik. Erabilera komertzialari, sustatzaileari eta MPEG LA, LLC-ri buruzko informazio gehiago eska dezakezu. Ikus <http://www.mpegla.com>.

Nokia etengabe garatzeko politikarekin lan egiten du, eta eskubidea dauka dokumentu honetan deskribatutako produktuetan aldaketak eta hobekuntzak egiteko aurrez ohartarazi gabe.

APLIKATU BEHARREKO LEGEEK ONARTZEN DUTEN NEURRIAN, NOKIAK EZ DITU BERE GAIN HARTZEN DATUEN EDO SARREREN GALERAK, EZ ETA INOLAKO KALTE BEREZIAK ERE, ISTRIPUEN ONDORIO DIRENAK, ZUZENEOAK EDO ZEHARKAKOAK, ARRAZOIA EDOZEIN DELA ERE.

DOKUMENTU HONEN EDUKIA BERE HORRETAN EMATEN DA. DOKUMENTU HONEN ZEHAZTASUNAK, FIDAGARRITASUNAK ETA EDUKIAK EZ DUTE BERMERIK IZANGO, EZ ESPLIZITURIK, EZ INPLIZITURIK, INDARREAN DAGOEN LEGEAK HORI ADIERAZI EZEAN, EZ ETA, BESTEAK BESTE, HELBURU JAKIN BATERAKO MERKATURATZE-BERMERIK ETA EGOKI IZATEAREN ONDORIOZKO BERMERIK ERE. NOKIAK ESKUBIDEA DU EDOZEIN UNETAN, AURREZ JAKINARAZI GABE, DOKUMENTU HAU BERRIKUSI EDO BALIOGABETZEKO.

Aplikazio, produktu eta zerbitzu jakin batzuk eskura egotea desberdina izan daiteke eskualde batetik bestera. Jarri harremanetan Nokiaren banatzailearekin, xehetasun gehiagori eta aukeran dauden hizkuntzei buruzko informazioa izateko.

Gailu honek tresna elektriko eta elektronikoetan substantzia arriskutsu jakin batzuk erabiltzeko murriztapeni buruzko direktiba betetzen du (hain zuzen ere 2002/95/EE direktiba).

Produktu honek AEBko eta beste herrialde batzuetako araudien eta legearen araberako osagaiak, teknologia edo softwarea izan ditzake. Debequatuta dago legeak urratzea.

Gailuarekin emandako hirugarrenen aplikazioak Nokiarekin elkartuta edo harremanetan ez dauden pertsonak edo erakundeek sortutakoak edo haienak izan daitezke. Nokiak ez du hirugarrenen aplikazioen gaineko copyright-ik, ez eta jabego intelektualaren eskubiderik ere. Beraz, Nokia ez da aplikazio horien euskarrien funtzioen eta azken erabiltzaileentzako euskarrien arduradun, ez eta aplikazioetako edo materialetako informazioaren arduradun ere. Nokiak ez du bermerik eskaintzen hirugarrenen aplikazioen kasuan. APLIKAZIOAK ERABILTZEAN, ONARTZEN DUZU APLIKAZIO HORIEK BAKARRIK EMATEN DIRELA, BERME ESPLIZITURIK EDO INPLIZITURIK GABE, ETA APLIKATU BEHARREKO LEGEAK ONARTZEN DUENERA ARTE. HALABER, ONARTZEN DU EZ NOKIAK EZ HAREN FILIALEK EZ DUTELA BERMERIK ESKAINTZEN, EZ ESPLIZITURIK, EZ INPLIZITURIK, EZTA JABETZAREN, KOMERTZIALIZATZEAREN EDO HELBURU JAKIN BATERAKO EGOKITZEAREN BERMEAK EDO APLIKAZIOEK PATENTE, COPYRIGHT, MARKA KOMERTZIAL EDO HIRUGARRENEN BESTE ZENBAIT ESKUBIDE BETETZEKO BERMEAK ERE.

9203340/1. edizioa ES

Aurkibidea

Zure segurtasuna	7
Informazio orokorra	13
Sarbide-kodeak.....	13
Nokiaren euskarria Interneten.....	14
1. Oinarrizko kontzeptuak	14
SIM txartela eta bateria jartzea.....	14
Bateria kargatzea.....	16
Funtzionamendu arruntaren posizioa.....	18
2. Zure telefonoa.....	19
Teklak eta piezak.....	19
Eskumuturrerako uhala.....	21
Telefonoa piztea eta itzaltzea.....	21
Deiak jasotzeko/jegiteko modua	21
Erakusteko modua	22
Teklatua blokeatzea	23
3. Dei-funtzioak.....	24
Deitzea edo dei bati erantzutea	24
Markaketa bizkorra	25
Bozgorailua.....	25
4. Testua idaztea.....	26

5. Menuko funtzioak	27
Mezularitza.....	28
Kontaktuak.....	41
Log-a.....	43
Ezarpenak.....	45
Galeria.....	58
Media.....	59
Antolatzailea	62
Aplikazioak.....	65
Web orria	66
SIM zerbitzuak.....	71.
6. Bateriari buruzko informazioa	72
Kargatzea eta deskargatzea	72
Nokia bateriak autentifikatzeko arauak.....	72
7. Ekipamendua	79
Zainketa eta mantentze-lana	79
Segurtasunari buruzko informazio gehiago	83

Zure segurtasuna

Irakurri jarraibide erraz hauek. Arauak ez errespetatzea arriskutsua edo legez kontrakoa izan daiteke. Irakurri erabiltzailearen eskuliburu osoa informazio gehiago izateko.



PIZTU TELEFONOA ARRISKURIK GABE

Ez piztu gailua mugikorrak erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.



ERREPIDEAN ERNE IBILTZEA FUNTSEZKOA DA

Errespetatu tokian tokiko legedia. Gidatzen duzun bitartean, eskuak libre izan beti autoarekin maniobrak egin ahal izateko. Gogoratu errepidean gidatzeko lehen araua arretaz ibiltzea dela.



INTERFERENTZIAK

Gailu mugikor guztiek jaso ditzakete haien errendimenduari eragin diezaioketen interferentziak.



ITZALI TELEFONOA OSPITALEETAN

Errespetatu murrizketa guztiak. Itzali gailua tresna mediko batetik gertu zaudenean.



ITZALI TELEFONOA HEGAZKINETAN

Errespetatu murrizketa guztiak. Haririk gabeko gailuak –esate baterako telefono mugikorrak– erabiltzeak interferentziak sor ditzake hegazkinetan.



ITZALI TELEFONOA GASOLINA-ZERBITZUGUNEETAN

Ez erabili gailua gasolina-zerbitzuguneetan. Ez erabili erregaietatik edo produktu kimikoetatik gertu.



ITZALI TELEFONOA LEHERGAIETATIK GERTU

Errespetatu murrizketa guztiak. Ez erabili gailua leherketak egiten dituzten lekuetan.



ERABILI ZENTZUZ

Telefonoa posizio normalean bakarrik erabili, produktuaren dokumentazioan azaltzen den bezala. Ez ukitu antena beharrezkoa ez bada.



ZERBITZU TEKNIKO GAITUA

Zerbitzu teknikoetako langile gaituek soilik instala edo konpon dezakete produktua.



EKIPAMENDUA ETA BATERIAK

Fabrikatzaileak onartutako ekipamendua eta bateriak soilik erabili. Ez konektatu bateraezinak diren produktuak.



URAREKIKO ERRESISTENTZIA

Zure gailuak ezin du ura jasan.
Ez ezazu busti.



SEGURTASUN-KOPIAK

Gogoratu telefonoan gordetzen duzun informazio garrantzitsu guztiaren segurtasun-kopiak egitea edo idatziz erregistratzea.



BESTE GAILU BATZUEKIKO KONEXIOA

Beste gailu batekin konektatu nahi baduzu, lehenik irakurri dagokion erabiltzailearen gidaliburua, segurtasun-jarraibideak zein diren ongi jakiteko. Ez konektatu bateraezinak diren produktuak.



LARRIALDI-DEIAK

Egiaztatu gailuaren telefono-funtzioa piztuta eta martxan dagoela. Sakatu deia amaitzeko tekla behar adina aldiz pantaila ezabatzeko eta deiak egiteko/jasotzeko modura itzultzeko. Markatu larrialdi-zenbakia eta, ondoren, sakatu deitzeko tekla. Adierazi zure kokapena. Ez eten deia horretarako baimena ematen dizuten arte.

■ Zure gailuari buruz

Gidaliburu honetan deskribatutako gailu mugikorraren erabilera sare hauek onartzen dute: GSM 900 eta SSM 1800. Sareei buruz informazio gehiago izateko, jarri zure zerbitzu-hornitzailearekin harremanetan.

Gailu honetako funtzioak erabiltzean, errespetatu legeak eta gainerako pertsonen pribatutasuna eta legezko eskubideak, copyright-ak barne, baita tokiko ohiturak ere.

Copyright-en babesak direla eta, agian, irudi, musika –dei-tonuak barne– eta beste eduki batzuk ezingo dituzu kopiatu, aldatu, transferitu edo berriro bidali.



Oharra: gailu honen funtzioak –erlojuaren alarma salbu– erabiltzeko, piztuta egon behar du. Ez piztu haririk gabeko gailua interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

■ Sare-zerbitzuak

Telefonoa erabiltzeko, haririk gabeko zerbitzuen hornitzaile baten zerbitzuak kontratatu behar dituzu. Funtzio askok sare-funtzio bereziak behar dituzte. Funtzio horiek ez daude erabilgarri sare guztietan. Litekeena da, sare batzuetan, zerbitzu-hornitzailearekin hitzarmen bat sinatu behar izatea sare-zerbitzua erabili ahal izateko. Zure zerbitzu-hornitzaileak emango dizkizu jarraibideak, eta jakinaraziko dizu zenbat kobratuko dizuten. Litekeena da sare batzuek zenbait muga izatea eta horiek sare-zerbitzuak erabiltzeko moduan eragitea. Adibidez, baliteke sare batzuek ez onartzea hizkuntzaren menpe dauden zenbait karaktere eta zerbitzu,

Zure segurtasuna

eta litekeena da zerbitzu-hornitzaileak eskatu izana funtzio batzuk gailuan erabilgarri edo aktibatuta ez egotea. Hala bada, funtzio horiek ez dira agertuko zure telefonoaren menuan. Zure gailuak konfigurazio bereziak izan ditzake; esate baterako, aldaketak menuen izen eta ordenetan eta menuetan. Jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin informazio gehiago jaso nahi baduzu.

Telefono honek WAP 2.0 (HTTP eta SSL) protokoloak onartzen ditu, eta horiek TCP/IP protokoloekin exekutatzen dira. Gailu honetako funtzio batzuek (MMS multimedia-mezuak, urruneko sinkronizazioa eta Interneteko sarbidea) sarea behar dute erabili ahal izateko.

Informazio orokorra

■ Sarbide-kodeak

Telefonoarekin emandako segurtasun-kodeak telefonoa babesten du, baimenik gabe inork erabil ez dezan. Aurrez definitutako kodea 12345 da.

SIM txartelarekin emandako PIN kodeak txartela babesten du, baimenik gabe inork erabil ez dezan. PIN2 kodea, SIM txartel batzuek dutena, beharrezkoa da hainbat zerbitzutan sartzeko. Hiru aldiz segidan okerreko PIN kodea edo PIN2 kodea sartzen baduzu, PUK kodea edo PUK2 kodea sartzeko eskatuko dizu. Kodea ez baduzu, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin. Moduluaren PINa beharrezkoa da SIM txartelaren segurtasun-moduluko informazioan sartzeko. Sinaduraren PINa sinadura digitalerako beharrezkoa izan daiteke. Deiak murrizteko pasahitza beharrezkoa da deiak blokeatzeko zerbitzua erabiltzean. Hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Segurtasuna* telefonoak sarbide-kodea eta segurtasun-ezarpenak nola erabili zehazteko.

■ Nokiaren euskarria Interneten

Ikus www.nokia.com/support edo Nokiaren zure herrialdeko web orria, erabiltzailearen eskuliburu honen azken bertsioa eskuratzeko, informazio osagarria irakurtzeko, deskargak egiteko eta Nokiaren produktuei lotutako zerbitzuak zein diren jakiteko.

1. Oinarrizko kontzeptuak

■ SIM txartela eta bateria jartzea

SIM txartelaren zerbitzuen erabilgarritasunari eta informazioari buruzko zehaztasun gehiago izateko, jarri harremanetan zure SIM txartelaren banatzailearekin. Zerbitzu-hornitzailea edo beste banatzailearen bat izan daiteke.


Bateria kendu aurretik, ziurtatu beti gailua itzalita eta kargagailutik deskonektatuta dagoela.



Oharra: ziurtatu telefonoa itzalita eta kargagailutik edo beste edozein gailutatik deskonektatuta dagoela, karkasa kendu aurretik. Saiatu osagarri elektronikoak ez ukitzen karkasa aldatzen dituzun bitartean. Gorde eta erabili beti telefonoa karkasa ipinita daukala.

1. Sakatu eta lerratu atzeko karkasa, telefonoaren beheko aldera, telefonotik bereizteko (1).
2. Bateria kentzeko, altxa irudian adierazten den bezala (2).
3. Altxatu kontu handiz SIM txartelaren euskarria, ateratzeko irtengunetik, eta ireki tapa erretraktila (3).
4. Sartu SIM txartela alakatutako izkina goiko eskuineko aldean gera dadin, eta urre koloreko kontaktuen zatia barnerantz gera dadin (4). Itxi SIM txartelaren euskarria eta sakatu blokeatuta uzteko (5).
5. Sartu bateria dagokion lekuan (6).

6. Jarri atzeko karkasa telefonoaren atzeko aldearen parean. Lerratu eta bultza egin telefonoaren goiko zatiraino, blokeatuta gera dadin (7).



■ Bateria kargatzea



Oharra: Nokiak modelo honentzat onartutako bateriak, kargagailuak eta ekipamendua soilik erabili. Beste edozein mota erabiliz gero, telefonoaren onarpen edo berme guztiak bertan behera geratu daitezke, eta arriskutsua izan daiteke.


Telefonoarekin edozein kargagailu erabili aurretik, egiaztatu kargagailuaren modelo-zenbakia.

Gailu hori AC-3 kargagailuak elikatuta erabiltzeko diseinatuta dago.

Gailu hau BL-4B bateriarekin erabiltzeko diseinatuta dago.

Onartutako ekipamendua badagoen jakiteko, jarri harremanetan banatzailearekin. Edozein ekipamenduren elikatze-haria deskonektatzen duzunean, heldu entxufeari eta egin tira handik, ez egin tira haritik.

1. Konektatu kargagailua korrante-hartune batera.
2. Jaso telefonoaren goiko zatiko karkasa.
3. Konektatu kargagailua telefonoari.




■ Funtzionamendu arruntaren posizioa

Zure gailuak barne-antena bat du.




Oharra: irrati-uhinen bidezko beste transmisio-gailu batzuekin gertatzen den bezala, telefonoa piztuta dagoenean, ez ukitu antena beharrezkoa ez bada. Adibidez, ez ukitu antena zelularra, hitz egiten ari zaren bitartean. Gorputzak antena transmisore bat ukitzeak irrati-komunikazioari eragiten dio; telefonoak funtzionatzeko behar duen potentzia-maila inolako beharrik gabe igoaraz dezake, eta baliteke bateriaren bizitza murriztea.



2. Zure telefonoa


■ Teklak eta piezak

- Entzungailua (1)
- Pantaila nagusia (2)
- Hautaketa-teklak (3)
- Navi[®] nabigazio-tekla (hemendik aurrera, desplazamendu-tekla) (4)
- Deitzeko tekla (5)
- Esekitzeko eta pizteko tekla (6)
- Kargagailuaren konektorea (7)
- Esku libreko kit eramangariaren konektorea (8)



Zure telefonoa


- Eskumuturreko uhala jartzeko zuloa (9)
- Konektoreentzako karkasa (10)
- Pantaila txikia (11)
- Kameraren lentea (12)



Oharra: ez ukitu konektorea, baimendutako zerbitzuko langileek bakarrik erabiltzeko baita.




Abisua: Gailuko desplazamendu-teklak nikela eduki dezake. Nikelak azala denbora luzean ukitzen badu, metal horri alergia izateko arriskua dago.



■ Eskumuturrerako uhala

Kendu atzeko karkasa, eta sartu eskumuturreko uhara, irudian agertzen den bezala. Jarri atzeko karkasa.



■ Telefonoa piztea eta itzaltzea

Telefonoa pizteko edo itzaltzeko, luze sakatu pizteko tekla. Ikus 'Teklak eta piezak', 19. orrialdean.


■ Deiak jasotzeko/egiteko modua

Telefonoa deiak jasotzeko/egiteko moduan dago, erabiltzeko prest dagoenean eta karaktererik sartu ez denean.

Sarearen seinalearen intentsitatea (1)

Bateriaren karga-maila (2)

Sarearen izena edo operadorearen logotipoa (3)



Zure telefonoa

Ezkerreko hautaketa-tekla **Hona** (4) da, zuzeneko sarbide pertsonalen zerrendako funtzioak ikusteko. Zerrenda ikustean, hautatu **Aukera** > *Hautatu-aukerak*, aukeren zerrendari gehitzeko erabilgarri dauden funtzioen zerrenda ikusteko; hautatu *Antolatu* > **Mugitu** eta zuzeneko sarbideen zerrendako funtzioak berrantolatzeke kokapena. **Menua** (5) eta *Izenak* (6)

■ Erakusteko modua

Telefonoa SIM txartelik gabe abiarazteko, baietz erantzun galdera honi: *Telefonoa piztu SIM txartelik gabe?* Ondoren, SIM txartela behar ez duten telefonoko funtzioak erabil ditzakezu.

Erakusteko moduan, telefonoan programatutako larrialdi-zenbaki ofizialetara dei daiteke.

■ Teklatua blokeatzea

Hautatu **Menua**, eta sakatu * bizkor, teklatua blokeatzeko eta teklak nahi gabe ez sakatzeko. Teklatuaren blokeoa aktibatuta dagoela dei bati erantzuteko, sakatu deitzeko tekla. Deia amaitzean edo ez onartzean, teklatua blokeatuta segituko du. Teklatua desblokeatzeko, hautatu **Desblok.**, eta sakatu * bizkor. Hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Telefonoa* > *Teklatuaren blokeo automat.* aurrez zehaztutako denbora-tartea igarotakoan telefonoaren teklatua automatikoki blokeatzeko konfiguratzeko, telefonoa deiak jasotzeko/egiteko egoeran dagoela.

Teklatua blokeatuta egon arren, deitu daiteke telefonoan programatutako larrialdi-zenbaki ofizialera.

3. Dei-funtzioak

■ Deitzea edo dei bati erantzutea

Deitzeko, sartu telefono-zenbakia, behar izanez gero, aurrezenbaki eta guzti. Behar izanez gero, herrialdeko kodea ere sartu behar duzu. Sakatu deitzeko tekla hautatutako zenbakira deitzeko. Deian, mugitu eskuinera entzungailuaren edo esku libreko kitaren bolumena igotzeko edo ezkerrera bolumena jaisteko.

Sarrerako dei bati erantzuteko, sakatu deitzeko tekla. Deia ez onartzeko (erantzun gabe), sakatu deia amaitzeko tekla edo itxi tapa. Sarrerako dei bati tapa irekiz erantzuteko, hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Deia* > *Tapa irekitzean erantzun* > *Aktibatuta*.

■ Markaketa bizkorra

Markaketa bizkorreko tekla bati zenbaki bat esleitzeko, hautatu **Menua** > *Kontaktua* > *Markatzen abiadura*, eta joan markaketa bizkorreko zenbakiraino; ondoren, hautatu *Esleitu*. Sartu zuk nahi duzun telefono-zenbakia, edo hautatu *Bilatu* aurkibidean telefono-zenbaki bat aukeratzeko. Markaketa bizkorraren funtzioa aktibatzeke, hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Deia* > *Markatze bizkorra* > *Jarrita*. Dei bat markaketa bizkorraren teklen bidez deitzeko, luze sakatu zuk nahi duzun zenbakiaren tekla, deiak egiteko/jasotzeko egoeran.



■ Bozgorailua

Erabil badaiteke, **Bozgorailua** edo **Arrunta** hauta dezakezu, dei batean telefonoaren bozgorailua edo entzungailua erabiltzeko.



Oharra: Bozgorailua erabiltzen duzunean, ez jarri telefonoa belarri ondoan, bolumena altuegia izan liteke eta.

4. Testua idaztea

Testua modu prediktiboan (:) eta ohiko moduan () idatz dezakezu. Ohiko testuaren modua erabiltzean, sakatu zenbakizko tekla bat (1 eta 9 bitartean) hainbatetan, nahi duzun karakterea azaldu arte. Idaztean testu prediktiboaren modua aktibatzeke edo desaktibatzeke, luze sakatu # eta hautatu *Aurresatea jarrita* edo *Aurresatea kenduta*. Testu prediktiboaren modua erabiltzean, letra bakoitzeko behin bakarrik sakatu tekla bakoitza. Nahi duzun hitza azaldu bada, sakatu # eta idatzi hurrengo hitza. Hitza aldatzeko, sakatu * hainbat aldiz, nahi duzun hitza azaldu arte. Hitzaren ondoren ? karakterea bistaratzen bada, hiztegian ez dagoela esan nahi du. Hitz hori hiztegian sartzeko, sakatu **Idatzi**, idatzi hitza (testua idazteko ohiko modua erabilia) eta sakatu **Gorde**. Testua idazteko iradokizunak: zuriune bat gehitzeko, sakatu **0**.

Testua idazteko metodoa bizkor aldatzeko, sakatu # hainbat aldiz. Pantailaren goiko aldean agertuko zaizu aukeratutakoaren adierazlea. Zenbaki bat sartzeko, eduki sakatuta nahi duzun zenbaki-tekla. Testua idazteko ohiko modua erabiltzean karaktere berezien zerrenda bat ikusteko, sakatu *; testu prediktiboa erabiltzen ari bazara, sakatu luze *.

5. Menuko funtzioak

Telefonoko funtzioak menutan multzokatuta daude. Hemen ez dira funtzio guztiak eta menuko aukera guztiak deskribatzen.

Deiak egiteko/jasotzeko egoeran, hautatu **Menua** eta zuk nahi dituzun menua eta azpimenua. Hautatu **Irten** edo **Atzera** uneko menu-mailatik irteteko. Sakatu esekitzeko tekla zuzenean deiak jasotzeko/egiteko modura itzultzeko. Menuaren ikuspegia aldatzeko, hautatu **Menua > Aukera** > *Menu nag. ikusp.* > *Zerrenda* edo *Sareta*.

■ Mezuak

Mezu-zerbitzuak bakar-bakarrik erabil daitezke sareak edo zerbitzu-hornitzaileak onartzen baditu.



Oharra: zure gailuak adieraz dezake telefonoak mezua bidali duela telefonoan programatutako mezu-zentroaren zenbakira. Horrek ez du esan nahi hartzaileak mezua jaso duenik. Mezularitza-zerbitzuei buruzko informazio xeheagoa nahi baduzu, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.



Garrantzitsua: kontuz ireki mezuak. Mezuek software maltzurak izan ditzakete edo telefonoa edo PCa honda dezakete.

Testu-mezuen eta multimedia-mezuen ezarpenak

Hautatu **Menua** > *Mezularitza* > *Mezuaren ezarpenak* > *Testu mezuak* > *Mezu zentroak*. SIM txartela mezu-zentro batekin edo gehiagorekin bateragarria bada, hautatu edo erantsi nahi duzuna.

Beharrezkoa izan liteke zerbitzu-hornitzaileari zentroko zenbakia eskatzea.

Hautatu **Menua** > *Mezularitza* > *Mezuaren ezarpenak* > *Multim. mezuak* eta aukera hauek: *Multim. jasotzea baimenduta*: hautatu *Ez*, *Bai* edo *Etxeko sarean* multimedia-zerbitzua erabiltzeko. *Konfigurazio ezarpenak*: multimedia-mezuak berreskuratzeko zerbitzu-hornitzaile lehenetsia hautatzeko.

Hautatu *Kontua*, zerbitzu-hornitzaileak emandako kontuak ikusteko eta erabili nahi duzuna hautatzeko. Zerbitzu-hornitzaileak konfigurazio-mezu gisa bidal dakizkizuke ezarpenak. *Iragarkiak onartu*: hautatu hori, publizitate gisa definitutako mezuak jaso ahal izateko. Aukera hori ez da bistaratzen, *Multim. jasotzea baimenduta* aukerak *Ez* gisa zehaztuta baldin badago.

MMS sortze-modua > Murriztua: multimedia-mezu batean sarearekin edo gailu hartzailearekin bateragarri ez diren edukiak ez onartzeko. Hautatu *Librea*, eduki horiek onartzeko, baina kontuan izan gerta litekeela gailu hartzailea mezua behar bezala ez jasotzea.

Irudiaren tamaina (murriztua) edo *Irudiaren tamaina (librea)*: *MMS sortze-modua* aukera *Murriztua* edo *Librea* gisa definituta baldin badago multimedia-mezu batean txerta daitekeen irudiaren tamaina zehazteko.

Testu-mezuak

Zure telefonoak karaktere-kopuruaren muga gainditzen duten testu-mezuak bidaltzeko aukera ematen du. Mezu luzeagoak bi mezutan edo gehiagotan bidaltzen dira. Kasu horietan, zerbitzu-hornitzailearen araberakoa da ordainketa. Azentua duten karaktereek, zeinu batzuek edo hizkuntza batzuetako karaktereek leku gehiago okupatzen dute, eta, beraz, mezu bakar batean bidal daitekeen karaktere-kopurua mugatu egiten dute.

Pantailaren goiko aldean bistaritzen den adierazle batek zehazten du guztira zenbat karaktere geratzen diren eta zenbat mezu beharko diren testua bidaltzeko. Adibidez, 673/2 adierazleak hau esan nahi du: 673 karaktere geratzen direla eta mezua bi mezuko segidan bidaliko dela. Memoria beteta dagoenean, pantailako ✉ ikonoa keinuka hasiko da. Mezu berriak jaso ahal izateko, ezabatu mezu zaharretakoren bat.

Multimedia-mezuak

Funtzio bateragarriak dituzten gailuek bakarrik jaso eta bistara ditzakete multimedia-mezuak. Mezuek itxura desberdina izaten dute hartzailearen gailuaren arabera.

Haririk gabeko sareak MMSen mezuen tamaina muga dezake. Sartutako irudiak muga gainditzen badu, litekeena da gailuak haren tamaina txikitzea, MMS bidez bidali ahal izateko.

Multimedia-mezu batean testua, irudia eta soinuklipak egon daitezke.

Testu-mezuak edo multimedia-mezuak sortzea

Hautatu **Menua** > *Mezularitza* > *Mezua sortu* > *Mezua*. Hartzaileak eransteko, mugitu *Nori*: eremuraino, eta sartu hartzailearen zenbakia edo hautatu **Gehitu** erabilgarri dauden aukeretan hartzaileen hautatzeko. Hartzaileak Cc edo Cco gisa gehitzeko, hautatu **Aukera** > *Hartzailea gehitu*> Cc edo Cco. Testu-mezu bat sartzeko, zoaz *Testua*: eremuraino, eta sartu testua. Mezuari gaia gehitzeko, hautatu **Aukera** > *Gehitu gaia* eta sartu gaia. Mezuari edukia eransteko, hautatu **Aukeratu** > *Txertatu* eta erantsi nahi diozun eduki-mota. Mezua bidaltzeko, sakatu deitzeko tekla.

Mezu-mota automatikoki aldatzen da, mezuaren edukiaren arabera. Besteak beste, ekintza hauek eragin dezakete mezu-mota aldatzea (testu-mezu izatetik multimedia-mezu izatera):

Mezuari fitxategi bat eranstea.

Entregatzeko txosten bat eskatzea.

Mezuaren lehentasuna Handia edo Txikia gisa ezartzea.

Hartzaile bat Cc edo Bcc gisa gehitzea edo mezuari gaia jartzea.

Mezu-mota multimedia-mezu izatera pasatzen denean, *Mezua multimedia bihurtua* ager daiteke telefonoan une labur batez, eta mezua editatzeko leihoko goiburukoaren testua aldatu eta *MMS berria* izatera pasatzen da. Egiaztatu goiburuko testua mezu-motarako egokia dela.

Baliteke zerbitzu-hornitzaileek mezu-motaren arabera tarifa desberdinak aplikatzea. Egiaztatu xehetasunak zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Flash mezuak

Flash mezuak (sare-zerbitzua) berehala bistaritzen diren testu-mezuak dira.

Hautatu **Menua** > *Mezularitza* > *Mezua sortu* > *Flash mezua*.

Berehalako mezuak

Testu-mezu sinple eta laburrak linean dauden bezeroei bidaltzeko berehalako mezularitza (BM) erabiltzeko (sareko zerbitzua), zerbitzu batean harpidetu eta erregistratu egin behar duzu. Jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin informazio gehiago jaso nahi baduzu.



Oharra: zure berehalako mezularitzaren zerbitzuaren arabera, baliteke gidaliburuan deskribatutako funtzio guztietarako sarbidea ez izatea eta pantailan ageri diren zenbait ikono eta testu aldatzea.

Zerbitzuarekin konektatzeko, hautatu **Menua** > *Mezularitza* > *Berehalako mezuak*. Hautatu nahi duzun konexioaren ezarpena eta kontua, eta sartu erabiltzailearen identifikatzailea eta pasahitza. Zerbitzuarekin konektatuta zaudenean, hautatu **Aukera**, eta baliteke hau erabilgarri egotea: *Kontaktua gehitu*: kontaktuen zerrendara gehitzen ditu kontaktuak. *Taldeak* (sarearekin bateragarria baldin bada): talde publikoen zerrenda bat bistaritzen du, talde bat bilatzen du edo berria sortzen du.

Bilatu: erabiltzaileak edo taldeak bilatzen ditu.

Gordetako elkarrizketak: gordetako elkarrizketen historia bistaritzen du.

Zerbitzuarekin konektatuta zaudenean, gainerakoek zure egoera ikusiko dute egoera-lerro batean: *Nire egoera*: *Linean*, *Nire egoera*: *okupatuta* edo *Egoera*: *lineaz kanpo ageri da*.

Zure egoera aldatzeko, hautatu **Aldatu**.

Zure kontaktuak *Linean* eta *Lineaz kanpo* karpitetan multzokatzen dira, haien egoeraren arabera. Berehalako mezularitzako saioa aktibo dagoen bitartean jasotako mezuak edo gonbitak *Elkarrizketak* karpetan gordetzen dira. Karpeta bat irekitzeko edo ixteko, zoaz haraino, eta, ondoren, eskuinera edo ezkerrera.

 ikurrak talde berri baten mezua adierazten du.

 ikurrak irakurritako talde baten mezua adierazten du.

 ikurrak berehalako mezu berri bat adierazten du.

 ikurrak irakurritako berehalako mezu bat adierazten du.

 ikurrak gonbit bat adierazten du.

Elkarrizketa bati ekiteko, zoaz zuk nahi duzun kontakturaino linean eta lineaz kanpo dauden kontaktuen karpitetan, eta hautatu **Hitz egin**.

Deiak egiteko/jasotzeko egoeran zaudela jasotako berehalako mezu bat edo gonbit bat irakurtzeko, hautatu **Irakurri**. Mezua irakurri ostean hari erantzuteko, sakatu dagozkien zenbakien teklak testua sartzeko, eta, ondoren, sakatu deitzeko tekla, bidaltzeko.

Gonbit bat irakurri ostean onartzeko, hautatu Ados; ez onartzeko, hautatu **Aukera** > *Ez onartu*. Saio aktibo dagoen bitartean elkarrizketa bat gordetzeko, hautatu **Aukera** > *Elkarrizketak gorde*. Kontaktu jakin baten mezuak blokeatzeko, zoaz karpeta horretako kontakturaino, eta hautatu **Aukera** > *Kontaktua blokeatu*. Karpeta bat ikusten duzun bitartean kontaktu bat desblokeatzeko, hautatu **Aukera** > *Blokeatuen zerrenda*, zoaz zuk nahi duzun kontaktura, eta hautatu **Desblokeatu**.

Audio-mezuak

Multimedia-mezuen zerbitzua erabil dezakezu, ahots-mezuak sortzeko eta bidaltzeko. Audio-mezuak erabiltzeko, aurrez multimedia-mezuen zerbitzua aktibatu beharko duzu.

Hautatu **Menua** > *Mezularitza* > *Mezua sortu* > *Audio mezua*. Grabagailua irekiko da. Audio-mezua grabatu ondoren, sartu hartzailearen telefonozenbakia *Nori*: eremuan, mezua bidaltzeko.

Kontaktuak eremutik telefono-zenbaki bat berreskuratzeko, hautatu **Gehitu** > *Kontaktuak*. Erabilgarri dauden aukerak ikusteko, hautatu **Aukera**. Audio-mezu bat jasotzen duzunean irekitzeko, hautatu **Erreproduzitu**. Mezu bat baino gehiago jaso baduzu, hautatu **Bistaratu** > **Erreproduzitu**. Mezua geroago entzuteko, hautatu **Irten**. Erabilgarri dauden aukeretara sartzeko, hautatu **Aukerak**. Audio-mezua entzungailuaren bidez erreproduzitzen da lehenespenez. Hautatu **Aukera** > *Entzungailua*, entzungailua aukeratzeko.

Ahots-mezuak

Ahots-postontzia sare-zerbitzu bat da, eta baliteke zerbitzu horretara harpidetu behar izatea. Jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin, ahots-postontziaren zenbakia zein den jakiteko eta informazio gehiago jasotzeko. Hautatu **Menua** > *Mezularitza* > *Ahots mezuak*

Posta elektronikoen aplikazioa

Posta elektronikoen aplikazioak datu-paketeen konexio bat erabiltzen du (sare-zerbitzua), eta bulegoan edo etxean erabiltzen duzun posta elektronikoko kontu bateragarria telefonoaren bidez sartzeko aukera ematen du. Mezu elektronikoa bidaltzeko edo berreskuratzeko, posta elektronikoko kontu bat eduki behar duzu eta doikuntzak egin behar dituzu. Litekeena da posta elektronikoko konfigurazioa konfigurazio-mezu gisa jasotzea. Telefonoak posta elektronikoko POP3 eta IMAP4 zerbitzariak onartzen ditu. Posta elektronikoko kontu bat sortzeko, hautatu **Menua** > *Mezularitza*, zoaz *Postontzi elektronikoa* aukeraraino, eta hautatu **Aukera**> *Gehitu postontzia* > *E-maila konf.-lag.*, *Gordetako ezarp. edo Eskuz sortu*

Posta elektronikoko ezarpenetara sartzeko, hautatu **Menua** > *Mezularitza* > *Mezuaren ezarpenak* > *E-mail mezuak*.

M e n u k o f u n t z i o a k

Mezu elektroniko bat idazteko, hautatu **Menua** > *Mezularitza* > *Mezua sortu* > *Mezu elektr.* Mezu elektronikoari fitxategi bat eransteke, hautatu **Aukeratu**> *Txertatu*. Mezu elektronikoa bidaltzeko, sakatu deitzeko tekla. Hautatu nahi duzun kontua, behar izanez gero.


Berreskuratzeko modua hautatzeko, hautatu **Menua** > *Mezularitza*> *Mezuren ezarpenak* > *E-mail mezuak*. > *Editatu postontziak* eta zuk nahi duzun postontzia, eta, ondoren, hautatu *Ezarpenak deskargatzen* > *Berreskuratzeko modua* > *Goiburua bakarrik*, *Mezu osoa* edo *Mezuko testua bakarrik* (IMAP4 zerbitzarirako bakarrik).

Deskarga bat egiteko, hautatu **Menua** > *Mezularitza* eta zuk nahi duzun postontzia; berretsi konektatzeko eskaera, behar izanez gero.

Berreskuratzeko modua *Goiburua bakarrik* gisa dagoela mezu elektronikoa deskargatzeko, markatu postontziko mezu elektronikoa eta goiburukoak, eta hautatu **Aukera** > *Markatutakoak berreskuratu*.

■ Kontaktuak



Izenak eta telefono-zenbakiak telefonoaren memorian edo SIM txartelaren memorian gorde daitezke. Telefonoaren memorian kontaktuak gorde daitezke, hainbat zenbaki eta testu-elementurekin. SIM txartelaren memorian sartutako izen eta zenbakiak  ikonoaren bidez adierazten dira. kontaktu bat bilatzeko, hautatu **Menua** > *Kontaktuak* > *Izenak* > **Auker.**>*Bilatu*. Mugitu kontaktuen zerrendan edo sartu bilatzen ari zaren izenaren lehenbiziko letrak. kontaktu berri bat gehitzeko, hautatu **Menua** > *Kontaktuak* > *Izenak* > **Aukeratu** > **Auker**> *Kontak. berr. gehi*. kontaktu bati xehetasun gehiago gehitzeko, ziurtatu erabiltzen ari zaren memoria *Telefonoa* edo *Telefonoa eta SIMa* dela.

Mugitu zenbaki edo testu-elementu berria gehitu nahi diozun izeneraino eta hautatu **Xehetasunak** > **Aukera** > *Gehitu zehetasun..* Kontaktatu bat kopiatzeko, hautatu **Menua** > *Kontaktuak* > *Izenak* > **Auker.** > *Kontak. kopiatu.* Telefono-aurkibidearen memoriatik SIM txartelaren memoriara, eta alderantziz, kopia daitezke izenak eta telefono-zenbakiak. SIM txartelaren memoriak izenak eta horiei atxikitako telefono-zenbakiak gorde ditzake. Pertsona baten harremanetarako informazioa vCard estandarra onartzen duen gailu bateragarri baten bidez bidali eta jaso dezakezu; adibidez, bisita-txartelen bidez. Bisita-txartel bat bidaltzeko, bilatu zein kontakturen informazioa bidali nahi duzun, eta hautatu **Xehetasunak** > **Aukera** > *Bisita-txart. bidali* > *Multimedia bidez*, *Testu mezu bidez* edo *Bluetooth bidez*. Bisita-txartel bat jasotakoan, hautatu **Erakutsi** > **Gorde**, bisita-txartela telefonoaren memorian gordetzeko. Bisita-txartela gorde nahi ez baduzu, hautatu **Irten** > **Bai**.

Hautatu **Menua** > *Kontaktuak* > *Ezarpenak* eta aukera hauetako bat:

Memoria erabiltzen: kontaktuetarako SIM txartela edo telefonoaren memoria hautatzeko.

Kontaktuen ikuspegia: aurkibideko izenak eta zenbakiak nola bistaratuko diren hautatzeko.

Memoria egoera: erabil daitekeen eta erabilia dagoen memoria-zatia ikusteko.

■ Erregistroa

Telefonoak galdutako eta jasotako deiak erregistratzen ditu, baldin eta sareak funtzio horiek onartzen baditu, telefonoa pizturik badago eta sarearen zerbitzu-eremuaren barruan badago.



Deiaren data eta ordua ikusi ahal izango dituzu, telefono-zenbaki bat editatu edo zerrendatik ezabatu, zenbakia *Kontaktuak* atalean gorde, edo zenbaki horretara mezu bat bidali.

Deiei buruzko informazioa ikusteko, hautatu **Menua** > *Log-a* > *Dei log*, *Galdutako deiak*, *Jasotako deiak* edo *Markt.zenbakiak*. Galdutako eta jasotako azken deiak eta markatutako zenbakiak ordena kronologikoan ikusteko, hautatu *Log-a*. Azken mezuak zer kontakturi bidali dizkiezun ikusteko, hautatu *Mezu hartzaileak*.

Hautatu **Menua** > *Dei log.* > *Deien iraupena*, *Pakete datu kontagailua* edo *Pak. Dat. kont. denbor.* azken komunikazioei buruzko gutxi gorabeherako informazioa lortzeko.



Oharra: zerbitzu-hornitzailearen deien eta zerbitzuen benetako faktura aldatu egin daiteke sarearen ezaugarrien, fakturazioen biribiltzeen, zergen eta abarren ondorioz.

Azken deien zerrendak ezabatzeko, hautatu *Garbitu log zerrendak*. Eragiketa hau ezin da desegin.

■ Ezarpenak

Menu honetan telefonoaren zenbait ezarpen konfiguratu dezakezu.

Menuko ezarpenei zegozkien hasierako zenbait balio berriz ezartzeko, sakatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Fabrikako ezar. berrez.*



Moduak

Telefonoak hainbat ezarpen-multzo ditu (*moduak*), eta dei-tonuak talde horien arabera pertsonaliza daitezke, egoeraren eta inguruaren arabera.

Hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Profilak* > *eta aukeratu*, zuk nahi duzun modua eta *Aktibatu*, hautatutako modua aktibatzeko; *Pertsonalizatu*, modua pertsonalizatzeko; edo *Kalkulatuta*, modu aktiboaren amaitze-ordua zehazteko. Denbora-tarte hori amaitzean, iraupen-denborarik definituta ez duen aurreko modua aktibatuko da.

Tonuen ezarpenak

Hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Tonuak*, eta aldatu modu aktibo horretarako erabilgarri dagoen edozein aukera. Telefonoak onartzen ditu mp3 formatuko dei-tonuak. Grabazioak dei-tonu gisa ere konfiguratu ditzake. Hautatu *Oharra honentzat*; aukeratutako dei-taldeak deitzen duenean bakarrik jo dezan telefonoak.

Nire lasterbideak

Zuzeneko sarbide pertsonalen bidez gehien erabiltzen diren telefonoaren funtzioetara bizkor sar zaitezke. Hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Nire lasterbid.* eta aukera hauek: *Ezker. auk. tekla*, edo *Eskuineko aukeraketa tekla*: eskuineko edo ezkerreko hautaketa-teklari telefono-funtzio bat esleitzeko.

Nabigazio tekla: zuzeneko sarbide horrek desplazamendu-teklarentzat funtzionatzen du. Joan nabigazio-teklara, hautatu **Aldatu** edo **Esleitu** eta zerrendako funtzioa.

Telefonoaren eta deien ezarpenak

Hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Deia* eta aukera hauek:

Dei desbiderapena (sare-zerbitzua): sarrerako deiak desbideratzeko. Horri buruzko informazio gehiago lortzeko, galdetu zure zerbitzu-hornitzaileari.

Automatikoki berriz markatu > *Jarrita*: hartu gabeko dei-saiakera baten ondoren, telefonoak berriz konektatzeko hamar saiakera gehiago egin ditzan.

Itxaron deia > *Aktibatu*, hitz egiten ari zaren bitartean, sareak beste deiren bat duzula ohartarazteko (sare-zerbitzua).

Nire ID dei egilea bidali (sare-zerbitzua): zure telefono-zenbakia deiaren helburuko telefonoan agertzea zehazteko.

Hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Telefonoa* eta aukera hauek:

Hizkuntza ezarpenak > Telefonoaren hizkuntza: telefonoaren pantailako testuak zein hizkuntzatan agertzea nahi den aukeratzeko.

Tapa itxiaren erabilerak > Deiak egiteko/jasotzeko modura pasatu: tapa itxita dagoenean deiak egiteko/jasotzeko moduan aktiba dadin konfiguratzeko telefonoa. Horrek ez die eragiten bigarren mailan funtzionatzeko aukera ematen duten aplikazioei.

Pantailaren ezarpenak

Energia aurrezteko funtzioarekin bateria aurrezteko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Bisualizazio nagusia > Energia aurrezlea > Piztuta**. Denbora-tarte jakin batean telefono-funtziorik erabiltzen ez bada, erloju digitala azaltzen da. Modu etenarekin bateria aurrezteko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Bisualizazio nagusia > Lo modua > Piztuta**. Denbora-tarte jakin batean telefono-funtziorik erabiltzen ez bada, pantaila itzaltzen da.

Pantaila txikiko ezarpenak aldatzeko, hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Mini bisualizazioa*.

Dataren eta orduaren ezarpenak

Hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Data eta ordua*. Hautatu *Data eta orduaren ezarpenak*, data eta ordua zehazteko. Hautatu *Data eta orduaren formatu-ezarpen.*, data eta orduaren formatua zehazteko. Hautatu *Data&orduko auto-eguneratzea*. (sare-zerbitzua), telefonoko data eta ordua automatikoki egoki daitezen une horretako ordu-eremura.

Konektagarritasuna

Bluetooth haririk gabeko teknologia

Baliteke herrialde batzuetan mugaren bat izatea Bluetooth gailuak erabiltzeko. Jar zaitez tokiko banatzailearekin edo agintariekin harremanetan.

Gailu hau Bluetooth 2,0 zehaztapenarekin bateratu daiteke, eta profil hauek onartzen ditu: esku librekoa, entzungailuak, , fitxategi-transferentzia, markaketa-sarea, sinkronizatzeko konexioa eta serie-ataka.

M e n u k o f u n t z i o a k


Bluetooth teknologia onartzen duten beste gailu batzuekin erabil daitekeela bermatzeko, erabili modelo honetarako Nokiak onartutako ekipoak bakarrik. Egiaztatu fabrikatzaileekin ekipo honekin zein gailu erabil daitekeen.

Baliteke Bluetooth teknologia erabiltzean mugak izatea hainbat herritan. Galdetu tokiko administrazioari edo zerbitzu-hornitzaileari.

Bluetooth teknologia erabiltzen duten funtzioak edo beste funtzio batzuk erabiltzen diren bitartean bigarren mailan teknologia horiek aktibatzen direnean, bateria gehiago behar izaten da eta bateriak gutxiago iraungo du.

Bluetooth teknologiaren bidez telefonoa Bluetooth gailu bateragarri batera konekta dezakezu, 10 metroko erradio baten barruan (32 oin). Bluetooth teknologia erabiltzen duten gailuek irrati-maiztasunen bidez komunikatzen dira, eta, beraz, ez da beharrezkoa zure telefonoa eta gainerako gailuak zuzeneko ikusmen-lerroan egotea, baina gerta liteke hormek edo beste gailu elektroniko batzuek interferentziak eragitea.

Bluetooth konexioaren konfigurazioa

Hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Konektibitatea* > *Bluetooth-a* eta aukera hauek: *Bluetooth-a* > *Piztuta* edo *Itzalita*: Bluetooth funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko.  ikurra adierazten du Bluetooth-a aktibatuta dagoela.

Audio hobek. bilatu: audioko Bluetooth gailu bateragarriak bilatzeko.

Parekatuta dauden gailuak: irismenean dagoen edozein Bluetooth gailu bilatzeko. Hautatu **Berria** irismenean dauden Bluetooth gailuak zerrendatzeko. Hautatu gailu bat eta **Lotu**. Sartu erabakitako Bluetooth sarbide-kode bat gailuan (16 karaktere gehienez), gailua eta telefonoa lotzeko. Gailura lehen aldiz konektatzean baino ez duzu sartu behar kode hori. Telefonoa gailura konektatuko da, eta datu-transferentzia hasi ahal izango da.

Aktibo dauden gailuak: une horretan zer Bluetooth konexio dagoen aktibo jakiteko.

Nire telefonoaren ikuspena edo *Telefonoaren izena*: zure telefonoa beste Bluetooth gailu batzuetan nola agertuko den zehazteko.

Segurtasunak kezkatzen bazaitu, itzali Bluetooth funtzioa edo konfiguratu **Nire telefonoaren ikuspena** aukeran **Ezkutatuta**. Ados zauden beste gailu batzuekiko Bluetooth komunikazioa baino ez onartu.

GPRS

GPRS teknologia (General Packet Radio Service) (sare-zerbitzua) datu-garraiatzaile bat da, eta Internetera eta hori bezalako datu-sareetara haririk gabe sartzeko aukera ematen du. GPRS aplikazio hauek erabil dezakete: MMSak, nabigatzea eta Java aplikazioak deskargatzea.

GPRS teknologia erabiltzeko, galdetu sare-operadoreari edo zerbitzu-hornitzaileari GPRS zerbitzuaren erabilgarritasunaren berri eta nola harpidetu. Gorde GPRS doikuntzak GPRSrekin erabilitako aplikazio bakoitzeko. Horien prezioei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.

Hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Konektibitatea* > *Pakete datuak* > *Pakete datuen konexioa*. Hautatu *Beti online* telefonoa piztean automatikoki GPRS sare batean erregistra dadin konfiguratzeko. *Behar denean* aukeratuz gero, erregistroa eta GPRS konexioa GPRS erabiltzen duen aplikazio batek behar duenean egingo da eta aplikazio hori itxitakoan amaituko da.

Datu-transferentzia

Datuak (agenda, kontaktuen datuak eta oharrak) PC bateragarri batekin, beste gailu batekin edo urruneko Internet zerbitzari batekin (sare-zerbitzua) transferitzeko aukera ematen du telefonoak.

Transferentziarako kontaktuen zerrenda

Telefonotik datuak kopiatzeko edo sinkronizatzeke, gailuaren izenak eta doikuntzek transferentziarako kontaktuen zerrendan azaldu behar dute.

Zerrendan transferentziarako kontaktu bat sartzeko (adibidez, telefono mugikor bat), hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Konektibitatea* > *Datu transferen.* > **Aukeratu** > *Gehitu kontaktua* > *Telefono sink. edo Telefono kopia*, eta sartu ezarpena, transferentzia-motaren arabera.

Datuak gailu bateragarri batekin transferitzea

Erabili haririk gabeko Bluetooth teknologiaren konexioa sinkronizatzeko. Beste gailuak aktibatuta egon behar du datuak jasotzeko.

Datuak transferitzen hasteko, hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Konektibitatea* > *Datu transferen.* eta transferitzeko kontaktua *Zerbitzaria sink.* edo *PC sink.* ez den zerrenda batean. Hautatutako datuak kopiatu edo sinkronizatu egingo dira doikuntzen arabera.

Sinkronizazioa PC bateragarri batetik

Agendako datuak, oharrak eta kontaktuak sinkronizatzeko, instalatu PCan telefonoaren Nokia PC Suite softwarea. Erabili haririk gabeko Bluetooth teknologia sinkronizatzeko, eta abiarazi sinkronizazioa PCtik.

Zerbitzari batekin sinkronizatzea

Urruneko Internet zerbitzari bat erabiltzeko, sinkronizazio-zerbitzu berri batera harpidetu behar duzu. Informazio gehiago lortu eta zerbitzu honetarako zein doikuntza behar diren jakiteko, galdetu zerbitzu-hornitzaileari.

Sinkronizazioa telefonotik abiarazteko, hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Konektibitatea* > *Datu transferen.* > *Zerbitzari sink.*

Osagarrien doikuntzak

Osagarri bateragarria bistaratuko da, baldin eta telefonoa osagarri bateragarri horretara konektatuta badago.

Hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Hobekuntzak* eta erabilgarri dagoen osagarria. Erabilgarri badago, *Erantzun automatikoa* hauta dezakezu, telefonoak automatikoki erantzun dezan. *Sar. dei. alerta* aukera *Behin bip egin* edo *Kenduta* gisa definituta badago, automatikoki erantzuteko aukera ez da aktibatuko.

Konfigurazio-doikuntzak

Sare-zerbitzu batzuetarako, beharrezkoa da telefonoaren konfigurazioan doikuntza batzuk egitea. Eskatu zure SIM txarteleko doikuntzak zerbitzu-hornitzaile bati, konfigurazio-mezu gisa, edo sartu eskuz zure doikuntza pertsonalak.

Hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Konfigurazioa* eta aukera hauek:

Lehenetsitako konfig. ezarpenak: telefonoan gordetako zerbitzu-hornitzaileen zerrenda ikusteko (lehenetsitako zerbitzua nabarmenduta bistaratzenda).

Aplikazioetan lehenets. akt.: lehenetsitako zerbitzu-hornitzailearen doikuntzak zein aplikazioekin erabili behar dituen definitzeko.

Sargune gustukoena: beste sarbide-puntu bat hautatzeko. Normalean, sare-operadore gustukoaren sarbide-puntua erabiliko du.

Zerb. hornitz. sistem. konek.: zerbitzu-hornitzailearen konfigurazio-ekarpenak deskargatzeko.

Ezarpenak eskuz sartzeko, ikusteko eta editatzeko, hautatu **Menua** > *Ezarpenak* > *Konfigurazioa* > *Konfigurazio ezarpertson*.

■ Operadorea menua

Zure sare-operadoreak eskaintzen dizun zerbitzu-atarira sartzeko aukera ematen dizu menu honek. Operadore bakoitzak berea du. Izena eta ikonoa operadorearen arabera aldatzen dira. Operadoreak menu hori egunera dezake, zerbitzu-mezu bat bidalita. Informazio gehiago eskuratzeko, jar zaitez harremanetan zure sare-operadorearekin.

■ Galeria

Menu honetan gaiak, grafikoak, grabazioak eta tonuak kudea daitezke. Fitxategi horiek karpetatuta daude sailkatuta.



Telefonoak DRM sistema (Digital Rights Management) onartzen du eskuratutako edukia babesteko.

Egiaztatu beti eduki guztien entrega-baldintzak eta aktibatze-kodeak erosi aurretik, kargu-motaren bat eduki baitezakete.

Hautatu **Menua** > *Galeria* > *Gaiak*, *Grafikoak*, *Tonuak*, *Musika-artx.*, *Grabaketak* eta *Jasot. artx.*

■ Media

Kamera eta bideoa

Mugikorrek duen kamerarekin argazkiak atera ditzakezu eta bideoklipak grabatu.



Irudiak ateratzea

Zure telefonoak 640 x 480 pixeleko argazkiak ateratzeko bereizmena du.

Irudi finkoaren funtzioa erabiltzeko, hautatu **Menua** > *Media* > *Kamera*; bestela, bideoaren funtzioa aktibatuta baldin badago, joan ezkerrera edo eskuinera. Irudi bat ateratzeko, hautatu **Kaptura**.

Hautatu **Aukera Gau mod. Pizt.** aukera aktibatzeko (argi gutxi badago); *Kontagail. piztuta*, autotenporizadorea aktibatzeko; *Irud. sek. aktibatu*, argazkiak segidan bizkor ateratzeko; edo *Ezarpenak* > *Irudi. aurreikus. denbora.*, aurrez bistaratzeko modua eta denbora zehazteko.

Bideo klipak grabatzea

Bideoaren funtzioa erabiltzeko, hautatu **Menua** > *Media* > *Kamera* > **Aukera** > *Bideoa*; bestela, kameraren funtzioa aktibatuta baldin badago, joan ezkerrera edo eskuinera. Bideoa grabatzen hasteko, hautatu **Grabatu**. Grabazioa eteteko, hautatu **Etena**; grabatzen jarraitzeko, hautatu **Jarraitu**; grabazioa geldiarazteko, hautatu **Gelditu**.

Egin dezakezun bideo kliparen iraupena zehazteko, hautatu **Menua** > *Media* > *Kamera* > **Aukera** > *Ezarpenak* > *Bideo kliparen luzera*.

Grabagailua

Ahotsa, soinua edo uneko deia graba dezakezu. Funtzio hau erabilgarria da izenak eta telefono-zenbakiak grabatzeko, eta horiek geroago idazteko.

Hautatu **Menua** > *Media* > *Grabagailua* eta grabazio birtualaren botoia, grabatzen hasteko. Dei batean grabatzen hasteko, hautatu **Aukera** > *Grabatu*. Dei bat grabatzean, eduki telefonoa posizio normalean, belarritik hurbil.

Grabazioa *Galeria* > *Ahots-etiketak* aukeran gordetzen da. Azken grabazioa entzuteko, hautatu **Auker.** > *Azken grab. errep.* Azken grabazioa multimedia-mezu gisa bidaltzeko, hautatu **Auker.** > *Grab. azkena bidal.*

Irratia

FM irratiari dagokion antena ez da haririk gabeko gailuaren antena berbera. FM irratia ongi funtziona dezan, gailuarekin bat datorren ekipamendua edo entzungailu bateragarriak konektatu behar zaizkio.



Oharra: entzun musika neurrizko bolumenean. Irratia etengabe oso ozen izateak, entzumena kalte dezake.

Hautatu **Menua** > *Media* > *Irratia*, edo, deiak jasotzeko/egiteko egoeran, luze sakatu * tekla.

Irrati-kateak gordeta badituzu, joan gora edo behera, gordeta dituzun kate batetik bestera aldatzeko; edo, bestela, sakatu jarri nahi duzun katearen memoriako tokiari dagozkion zenbaki-teklak.

Hurbileko kate bat bilatzeko, luze sakatu desplazamendu-tekla ezkerrera edo eskuinera.

Sintonizatuta duzun katea gordetzeko, hautatu **Aukera** > *Emisora gorde*.

Irratiaren bolumena doitzeko, aukeratu **Aukera** > *Bolumena*.

Irratia hondoko soinu moduan uzteko, sakatu esekitzeko tekla. Irratia itzaltzeko, luze sakatu esekitzeko tekla.

■ Antolatzailea

Alarma, agenda eta zereginen zerrenda

Alarma erabiltzeko, hautatu **Menua** > *Antolatzailea* > *Alarma* eta aukera hauek:



Alarma: alarma piztu edo itzaltzeko.

Alarmaren ordua: alarmak jotzeko ordua doitzeko.

Errepikatu: hautatutako asteko egun guztietan alarmak jotzeko moduan konfiguratzeko telefonoa.

Alarma tonua: alarma-tonua hautatzeko edo pertsonalizatzeko.

Lo-kul.den.kan.: alarmak berriz jotzeko denbora-tartea definitzeko.

Telefonoak abisu-tonu bat joko du eta pantailan *Alarma!* mezua keinuka eta ordua bistaratuko dira, telefonoa itzalita egon arren. Hautatu **Gelditu**, alarma geldiarazteko. Telefonoari minutu batez ohar-tonua jotzen uzten badiozu edo **Errepikatu** aukeratzen baduzu, alarma errepikatzeke denbora aukeran definitutako denbora-tartean gelditzen da, eta, gero, berriro jotzen du.

Telefonoa itzalita dagoela programaturiko alarma-ordua iristen bada, gailua automatikoki piztuko da eta alarma-tonua jotzen hasiko da. **Gelditu** aukeratzen baduzu, deiak egiteko gailua aktibatu nahi ote duzun galdetuko dizu. Aukeratu **Ez** gailua itzaltzeko, edo **Bai** deiak egin eta jasotzeko. Ez aukeratu **Bai** telefono mugikorra erabiltzeak interferentziak edo arriskuak sor baditzake.

Hautatu **Menua** > *Antolatzailea* > *Egutegia*. Egunaren inguruko koadroak adierazten du uneko data. Egun horretarako oharren bat definituta badago, beltzez agertuko da. Oharrak ikusteko, hautatu **Ikusi**. Agendako ohar guztiak ezabatzeko, hautatu hilabeteka edo asteka bistaratzea, eta sakatu **Aukera** > *Oharrak ezabatu*. Beste aukera hauek ere badaude: ohar bat idatzi, ezabatu, editatu eta tokiz aldatu edo beste egun batean kopiatu; eta ohar bat testu-mezu edo elementu atxiki gisa bidali zuzenean beste telefono bateragarri baten agendara.

Hautatu **Menua** > *Antolatzailea* > *Joan egitekoetara*. Zereginen zerrenda lehentasunaren arabera bistaratzen eta ordenatzen da. Hautatu **Aukerak**, eta, gero, ohar bat gehitu, ezabatu edo bidal dezakezu, baita ohar bat amaitu gisa markatu edo zeregin-zerrenda mugaegunaren arabera ordenatu ere.

■ Aplikazioak

Telefonoaren softwareak bereziki Nokia telefono honetarako diseinatutako joko batzuk eta Java aplikazioak ditu. Jokoak eta aplikazioak instalatzeko memorian zenbat leku duzun ikusteko, hautatu **Menua** > *Aplikazioak* > **Aukera** > *Memoria egoera*. Jekoa edo aplikazioa martxan jartzeko, hautatu **Menua** > *Aplikazioak* > *Jokoak* edo *Bilduma*. Nahi duzun joko edo aplikaziora joan eta hautatu **Ireki**. Joko edo aplikazio bat deskargatzeko, hautatu **Menua** > *Aplikazioak* > *Deskargak* > *Jokoen deskargak* edo *Ap. deskargak*. Telefonoak Java J2METM aplikazioak onartzen ditu. Aplikazio bat deskargatu aurretik, ziurta ezazu telefono honekin bateragarria dela.



Garrantzitsua: birusen eta bestelako programa kaltegarrien kontrako babes egokia eskaintzen duten iturrietatik datozen aplikazioak soilik instalatu.

Aplikazio bat deskargatzerakoan, kontuan izan *Galeria* menuan gorde daitekeela *Aplikazioak* menuan gorde beharrea.

■ Internet

Telefonoaren nabigatzailearen bidez, Interneteko zenbait zerbitzu mugikorretara sar zaitezke. Kontultatu sare-operadoreari edo zerbitzu-hornitzaileari zerbitzuen erabilgarritasuna, prezioak eta zerbitzu horien gaineko zergak.





Garrantzitsua: kalte egin dezaketen programen aurkako babes eta segurtasun egokia eskaintzen dizuten konfiantzako zerbitzuak bakarrik erabili.

Zerbitzu batera konektatzea

Ziurtatu zerbitzu horren doikuntzak gordeta eta aktibatuta daudela.

Zerbitzuarekiko konexio bat ezartzeko, ireki hasierako orria, adibidez zerbitzu-hornitzailearen hasierako orria, eta hautatu **Menua** > *Web orria* > *Hasi*, edo, deiak jasotzeko/egiteko egoeran, luze sakatu **0** tekla. Gogoko batera sartzeko, hautatu **Menua** > *Web orria* > *Laster markak*. Hautaturiko gogokoa aktibatuta dauden zerbitzu-doikuntzekin ez badabil, aktiba ezazu zerbitzu-doikuntzako beste multzo bat eta saia zaitetz berriz. Azken URLra joateko, hautatu **Menua** > *Internet* > *Azken web helb.* Zerbitzuaren helbidea idazteko, hautatu **Menua** > *Web orria* > Joan helbidera.

Nabigazioa amaitzeko eta konexioa eteteko, luze sakatu esekitzeko tekla. Zerbitzu batekin konektatu ondoren, haren orrietan nabigatu ahal izango duzu. Telefono-teklen funtzioa zerbitzuen arabera alda daiteke. Segitu telefonoaren pantailan agertuko diren jarraibideei.

GPRS aukera datu-garraiatzaile bezala aktibatuta badago, kontuan izan nabigatzen ari zarenean pantailaren goiko ezkerreko aldean  adierazlea agertuko dela. GPRS konexio batean dei bat edo testu-mezu bat jasotzen edo dei bat egiten baduzu, pantailaren goiko ezkerrean  adierazlea agertuko da, GPRS konexioa etenda (zain) dagoela adierazteko. Deia amaitu ondoren, telefonoa GPRS konexioa berrezartzen saiatzen da.

Aurrez instalatutako gogokoak edo hirugarrenen Interneteko guneetarako estekak izan ditzake gailuak. Halaber, gailuaren bidez hirugarrenen guneetara sar daiteke. Hirugarrenen guneak ez daude Nokiarekin afiliatuta, eta Nokiak ez ditu horiek babesten ez horien gaineko erantzukizunik. Horietara sartuz gero, babesari eta edukiari dagozkion neurriak hartu beharko dituzu.

Nabigatzailearen itxura-doikuntzak

Deiak jasotzeko/egiteko egoeran, hautatu **Menua** > *Web orria* > *Ezarpenak*> *Itxura ezarpenak*. Hautatu *Testu egokitzea* > *Piztuta*, testuak hurrengo lerroan segitzeko. *Itzalita* hautatzen baduzu, testua laburtuta bistaratuko da. Hautatu *Irudiak erakutsi* > *Ez*, orriko irudiak ez bistaratzeko. Nabigatzen ari zarela konexioren bat segurua ez den beste batera aldatzen denean, telefonoak ohartarazteko moduan konfiguratzeke, Hautatu *Alertak* > *Alerta konexio ez seguruagatik* > *Bai*. Orri seguru batean seguruak ez diren elementuak daudenean, telefonoak ohartarazteko moduan konfiguratzeke, hautatu *Alerta elementu ez seguruagatik* > *Bai* . Kontuan izan alerta horiek ez dutela konexio segurua bermatzen. Hautatu *Karaktere-kodeketa*, informazio hori ez duten nabigatzaileetako orriak bistaratzeko telefonoak erabili beharreko karaktere-multzoa hautatzeko edo telefono bateragarri batera web helbide bat bidaltzean UTF-8 kodifikazioa erabiliko den edo ez hautatzeko.

Cookie-ak eta cache memoria

Web gune bateko telefonoaren nabigatzailearen cache memorian gordetako zenbait daturi izena emateko balio du cookie terminoak. Datu horiek, esate baterako, erabiltzailearen informazioa edo nabigatzeko lehentasunak izan daitezke. Cache memoria ezabatu arte gordetzen dira cookie horiek. Telefonoak cookieak jaso ditzan edo jasotzen ez uzteko, hautatu **Menua** > *Weba* > *Ezarpenak* > *Segurt. ezarp.* > *Cookieak* > *Baimendu* edo *Uko egin*.

Cachea tarteko memoria da, datuak aldi baterako gordetzeko erabiltzen dena. Pasahitza eskatzen duen informazio konfidentzialera sartzen saiatzen bazara edo sartzen bazara, hustu telefonoaren cachea erabiltzen duzun bakoitzean. Sartu zareneko informazioa edo zerbitzuak cachean jasotzen dira. Cache-a husteko, hautatu **Menua** > *Weba orria* > *Cachea ezabatu*.

Zerbitzuko sarrerako postontzia

Telefonoak zure zerbitzu-hornitzaileak igorritako zerbitzu-mezuak (sare-zerbitzua; hedapen-mezuak) jaso ditzake. Zerbitzu-mezua irakurtzeko,

hautatu **Mostrar. Irten** hautatzen baduzu, mezua **Zerbitzu-postontzia** karpetara mugituko da. Telefonoa zerbitzu-mezuak jasotzeko konfigurazeko, hautatu **Menua > Web orria > Ezarpenak > Zerbitzu sarr. ontzi ezarp. > Zerbitzu-mezuak > Jarrita.**

Nabigatzailearen segurtasuna

Segurtasuneko funtzioak beharrezkoak izan daitezke zerbitzu batzuetarako, adibidez, bankuko zerbitzuetarako edo telefono bidezko erosketa-zerbitzuetarako. Konexio-mota horietarako segurtasun-ziurtagiriak behar dira, eta baliteke SIM txartlean egon daitekeen segurtasun-modulu bat ere behar izatea. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

■ SIM zerbitzuak

Litekeena da SIM txartelak zerbitzu osagarriak eskaintzea. Informazioa lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.



6. Bateriari buruzko informazioa

■ Kargatzea eta deskargatzea

Telefonoa elikatu egiten da, berriz kargatzen den bateria baten bidez. Bateria sarritan karga eta deskarga daiteke, baina denborarekin gastatu egingo da. Bateriaen kargak normalean baino nabarmen gutxiago irauten badu, aldatu bateria. Erabili Nokiak onartutako bateriak soilik, eta kargatu bateriak Nokiak gailu honentzat onartutako kargagailuak erabiliz. Ordezko bateria bat erabiltzen duzun lehen aldian, edo bateria denbora luzez erabili gabe egon bada, baliteke kargagailua konektatu behar izatea, eta, gero, deskonektatu eta berriz konektatu behar izatea, bateria kargatzen has dadin.

Deskonektatu kargagailua entxufetik eta telefonotik erabili behar ez baduzu. Bateria erabat kargatuta dagoenean, kendu kargagailutik, gehiegi kargatzeak iraupena murrizt baitezake. Guztiz kargatuta dagoen bateria erabiltzen ez bada, bateria deskargatu egiten da denbora jakin baten ondoren.

Bateria erabat deskargatuta badago, minutu batzuk pasatuko dira pantailan karga-adierazlea agertu arte edo deia egin ahal izan arte. Erabili bateria diseinatu zuten helbururako bakarrik. Ez erabili inoiz kargagailua edo bateria hondatuta badaude.

Ez egin zirkuitulaburrik bateriari. Zirkuitulaburra gerta liteke objektu metaliko batek –txanpon bat, klip bat edo boligrafo bat– zuzenean konektatzen baditu bateriaren terminal positiboa (+) eta negatiboa (-). (Bateriaren banda metalikoak dira.) Hori gerta liteke, adibidez, patrikan edo poltsan beste bateria bat baduzu. Terminalen zirkuitulaburrak bateria edo horri konektaturiko objektua honda ditzake.

Bateria leku hotzetan edo beroetan uzten baduzu, esate baterako, udan edo neguan itxita dagoen ibilgailuan, bateriaren ahalmena eta iraupena murriztu egingo dira. Saia zaitetz beti 15 °C eta 25 °C (59 °F eta 77 °F) artean izaten. Baliteke, bateria hotzegi edo beroegi badago, telefonoak denboraldi batean ongi ez funtzionatzea, baita erabat kargatuta badago ere. Izozte-puntuaren azpitik dauden tenperaturek bereziki mugatzen dute bateriaren errendimendua.

Ez bota bateriak sutara, balio ez dutenean, lehertu egin baitaitezke. Bestalde, bateriak lehertu egin daitezke, hondatuta badaude. Bete tokiko araudia, erabilitako bateriak botatzeko garaian. Mesedez, birziklatu ahal den guztietan. Ez bota bateriak etxeko zakarrontzira.

Ez desmuntatu eta ez txikitu pilaren osagairik edo bateriarik. Bateriak likidoren bat galtzen badu, ez ukitu azala edo begiak likidoarekin. Ukitu baldin baduzu, garbitu begiak edo azala berehala urez, edo joan medikuarengana.

■ Nokia bateriak autentifikatzeko arauak

Zure segurtasunerako, erabili beti jatorrizko Nokia bateriak. Nokia bateria jatorrizkoa izan dadin, eros ezazu Nokiaren saltoki baimenduetan; bilatu Nokia Original Enhancements (Nokiaren jatorrizko ekipoak) logotipoa salgaietan eta begiratu etiketari, urrats hauei jarraiki:

Urratsak behar bezala egin arren, bateria jatorrizkoa den berme osorik ez dugu. Eskuratutako Nokia bateria benetakoa eta jatorrizkoa ez dela susmatzen baduzu, ez duzu erabili behar. Hurbilen duzun Nokiaren hornitzailearengana edo saltokira eramatea eta laguntza eskatzea gomendatzen dizugu. Nokiaren hornitzaile edo saltoki baimenduak egiaztatuko du bateria jatorrizkoa den. Ezin bada frogatu bateria jatorrizkoa dela, eraman berriro eskuratu duzun tokira.

Hologramaren egiazkotasuna




1. Ikus hologramaren etiketa: angelu batetik, elkartzen diren eskuen irudia ikusiko da (Nokiaren ikurra), eta, bestetik, Nokia Original Enhancements-en logotipoa (Nokiaren jatorrizko ekipamendua).

Bateriari buruzko informazioa



2. Okertu holograma logotipoaren ezkerrera, eskuinera, gora eta behera, eta 1, 2, 3 eta 4 puntuak ikusi behar dira alboetan.



3. Harraskatu etiketaren alde batean, eta 20 digituko kode bat azalduko da (adibidez, 12345678919876543210). Bira eman bateriari zenbakiak gora begira gera daitezten. 20 digituko kodea irakurtzeko, ikus, lehenbizi, goiko lerroko zenbakiak eta, gero, behekoak.



4. Egiaztatu 20 digituko kodearen balioetasuna, www.nokia.com/batterycheck Nokiaren web orriko jarraibideei jarraiki.

Testu-mezu bat sortzeko, idatzi 20 digituko kodea (adibidez, 12345678919876543210) eta bidali +44 7786 200276 zenbakira.

Operadore nazionalei eta nazioartekoei dagozkien karguak aplikatuko dira.

Hala, kodea kautotu daitekeen edo ez adieraziko dizun mezu bat jaso beharko zenuke.

Zer gertatzen da bateria benetakoa ez bada?

Hologramaren etiketarekin ezin baduzu egiaztatu Nokia bateria benetakoa den, ez erabili, eta eraman hurbilen duzun Nokiaren hornitzaile baimenduarengana edo saltokira, laguntza eskatzeko. Arriskutsua izan daiteke fabrikatzaileak onartzen ez dituen bateriak erabiltzea, gailuaren errendimendua hondatu eta gailua eta ekipamendua honda dezakete. Halaber, gailuaren hainbat onarpen edo berme baliogabetu ditzake.

Nokiaren jatorrizko bateriei buruzko informazioa behar baduzu, ikus www.nokia.com/battery.

7. Ekipamendua

Osagarriei eta ekipamenduari buruzko arau erabilgarriak

- Ez utzi osagarriak eta ekipamendua haurren eskueran.
- Edozein osagarri edo ekipamenduren elikatze-haria deskonektatzeko, heldu entxufeari eta egin tira handik, ez egin tira haritik.
- Egiartzatu noizean behin zure ibilgailuan instalatutako ekipamendua behar bezala jarrita dagoela eta ondo dabilela.
- Ibilgailurako ekipamendu konplexua langile gaituek soilik instalatu behar dute.

Zainketa eta mantentze-lana

Telefono hau diseinu eta fabrikazio bikaineko produktua da, eta arduraz zaindu behar da. Iradokizun hauekin, bermearen estaldura babestuko duzu.

Z a i n k e t a e t a m a n t e n t z e - l a n a

- Ez busti telefonoa. Euriak, hezetasunak eta likidoek zirkuitu elektronikoak oxida ditzaketen mineralak dituzte. Telefonoa bustitzen bada, kendu bateria eta itxaron telefonoa erabat lehortu arte bateria berria jartzeko.
- Ez erabili eta ez gorde telefonoa leku zikinetan edo hautsez betetakoetan. Pieza mugikorrak eta osagai elektronikoak hondatu egin litezke.
- Ez gorde telefonoa leku beroetan. Temperatura altuek gailu elektronikoen iraupena gutxitu dezakete, bateria kalte dezakete eta zenbait plastiko deformatu edo desegin egin ditzakete.
- Ez gorde telefonoa leku hotzetan. Telefonoak ohiko tenperatura berreskuratzen duenean, hezetasuna sor daiteke barrualdean, eta horrek zirkuitu elektronikoen plakak kalte ditzake.
- Ireki telefonoa beti gidaliburu honetako jarraibideen arabera.
- Ez utzi lurrera erortzen, ez kolperik eman eta ez mugitu zakarki telefonoa. Zakar erabiltzen baduzu, barne-zirkuituen plakak eta pieza mekaniko ahulenak puskatu egin litezke.

- Ez erabili produktu kimiko kaltegarriak, disolbagarriak edo garbigarri sendorik telefonoa garbitzeko.
- Ez pintatu telefonoa. Pinturak pieza mugikorak oztopa ditzake eta behar bezala funtzionatzea galaraz dezake.
- Erabili zapi leun, garbi eta lehor bat lenteak garbitzeko (adibidez, kamera, hurbiltasun-sentsorea eta argi-sentsorea).
- Erabili telefonoak berez daukan antena edo onetsitako ordezeko antena soilik. Baimenik gabeko antenek, aldaketek eta erantsitako elementuek kaltea eragin diezaiokete telefonoari eta irrati-aparatuei buruzko araudia urra dezakete.
- Ez erabili kargagailurik aire zabalean.
- Sortu beti gorde nahi dituzun datuen segurtasun-kopia bat; adibidez, aurkibideko kontaktuak edo oharrak.
- Errendimendua hobetzeko, noizean behin gailua berrabiarazi nahi baduzu, itzali gailua eta atera batera.

Zainketa eta mantentze-lana

Gomendio horiek guztiak berdin-berdin aplikatzen zaizkie telefonoari, bateriari, kargagailuari eta gainerako osagarriei. Gailuren bat behar bezala ez badabil, eraman hurbilen duzun baimendutako banatzaileari.



Gurpildun edukiontziazen irudiak adierazten du Europako Batasunean bereizita jaso behar dela objektua, haren bizi-zikloaren amaieran.

Ez bota produktu hauek udal-hondakindegietara sailkatu gabe.

Informazio gehiago izateko, ikus ingurumena errespetatzen duen produktua dela ziurtatzen duen agiria edo ikus herrialdeko informazio zehatza www.nokia.com gunean.

Segurtasunari buruzko informazio gehiago

■ Haurrak

Gailuak eta haren ekipamenduak pieza txikiak izan ditzakete. Ez utzi haurren eskueran.

■ Ingurune operatiboa

Produktu honek irrazi-maiztasunaren energiarekiko esposizioa arautzen duten arauak betetzen ditu, bai belarriaren ondoan, bai gorputzetik gutxienez 2,2 cm-ra (7/8 hazbete) edukitzen denean ere. Gailua zorro babesle batekin, gerriko pintza batekin edo euskarri batekin gorputzetik gertu erabiltzen baduzu, komeni da zuk metalik gainean ez izatea eta produktua gorputzetik lehen aipatutako distantziara izan behar duzu. Mezuak edo datu-fitxategiak transmititzeko, gailu honek kalitateko sare-konexioa behar du. Kasu batzuetan, mezuen edo datu-fitxategien transmisioa atzeratu egin liteke konexio egokia erabilgarri egon arte. Ziurtatu transmisioa amaitu bitartean distantzietan buruzko jarraibideak betetzen dituzula.

Telefonoaren zenbait osagarri magnetikoak dira. Telefonoak metalezko materialak erakar ditzake. Ez jarri kreditu-txartelik, ez bitarteko magnetikoak ere telefonotik gertu, horietan gordetako informazioa ezaba baitaiteke.

■ Aparatu medikoak

Irrati-transmisioko ekipoez, telefono mugikorrek barne, interferentziak eragin ditzakete behar bezala babestuta ez dauden tresna medikoen funtzionamenduan. Kontsultatu mediku batekin edo aparatu medikoaren fabrikatzailearekin, IM kanpo-seinaleen aurka behar bezala babestuta dauden jakiteko edo edozein zalantza argitzeko. Itzali telefonoa hala adierazten dizuten erietxeetako leku berezietan. Litekeena da ospitale eta erietxeetan IM kanpo-seinaleekiko sentikorrek diren ekipoak erabiltzea.

Gorputzean ezar daitezkeen gailu medikoak

Gailu mugikorren eta inplanta daitezkeen gailu medikoen artean (adibidez, gorputzean jar daitezkeen taupada-markagailuak edo desfibriladore automatikoak) gutxienez 15,3 cm-ko (6 hazbeteko) distantzia izatea gomendatzen dute inplanta daitezkeen gailu medikoen fabrikatzaileek, gailu mediko horiekin interferentziarik ez sortzeko.

Gailu horiek dituztenek alderdi hauek kontuan izan behar dituzte:

- Gailu mugikorra piztuta badago, beti utzi behar da gutxienez 15,3cm-ko (6 hazbeteko) tartea gailu mugikorraren eta gailu medikoaren artean.
- Gailu mugikorra ez dute eraman behar bularraren parean dagoen sakelan.
- Gailu medikoaren aurkako aldeko belarrian erabili behar da gailu mugikorra, interferentzia-arriskua ahal bezainbat murrizteko.
- Gailu mugikorra berehala itzali behar da, interferentziaren bat gertatzen ari den susmorik badago.
- Inplanta daitekeen gailu medikoaren fabrikatzailearen jarraibideak irakurri eta haiei jarraitu behar zaie.

Gailu mugikorra eta inplanta daitekeen gailu medikoaren erabilerari buruz zalantzarik izanez gero, galdetu osasun-espezialistari.

Entzuteko gailuak

Haririk gabeko zenbait terminal digitalek interferentziak eragin ditzakete audiofono jakin batzuekin. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

■ Ibilgailuak

Behar bezala instalatuta edo babestuta ez dauden motordun ibilgailuetako sistema elektronikoei eragin diezaiekete IM seinaleek (esate baterako, injekziozko sistema elektronikoak, ibilgailuen balaztak blokeatzea eragozten duen balazta-sistema elektronikoak –ABS–, abiadura kontrolatzeko sistema elektronikoak, airbag-sistemak). Informazio gehiago nahi izanez gero, egiaztatu zure autoaren edo zuk erantsitako ekipamenduaren alderdi horiek fabrikatzailearekin edo haren agente komertzialarekin. Langile trebatuek soilik konpon dezakete telefonoa edo instala dezakete ibilgailu batean. Behar bezala instalatu edo konpondu ez bada, arriskutsua gerta daiteke eta telefonoari aplikatzen zaion bermea baliogabetu. Egiaztatu maiz zure ibilgailuko telefono mugikorraren ekipo osoa behar bezala muntatuta dagoela eta behar bezala dabilela. Ez biltegitatu eta garraiatu likido sukoirik, gasik eta material lehegarririk telefonoa eta haren piezak edo ekipamendua dauden leku berean. Airbaga duen ibilgailua baduzu, gogoratu indar handiz puzten dela. Ez jarri objekturik –ez instalaturiko ekipoa, eta ez telefono mugikorraren pieza eramangarriak– airbagaren gainean edo hori zabalduko den gunearen gainean. Telefonía mugikorreko ekipoa ibilgailuaren barruan behar bezala instalatuta ez badago eta airbaga zabaldu egiten bada, zauri larriak eragin ditzake.

Debekatuta dago hegazkinetan telefonoa erabiltzea. Itzali telefonoa hegazkinean sartu aurretik. Haririk gabeko gailuak hegazkinean erabiltzea arriskutsua izan daiteke hegazkinaren beraren funtzionamenduarentzat, eta telefono mugikorraren sarearen konexioa eten egin dezake; gainera, legez kontrakoa da.

■ Lehergaiak egon daitezkeen inguruak

Deskonektatu telefonoa leherketak gerta daitezkeen eremuetan, eta bete seinale eta argibide guztiak. Lehertzeko arriskua dagoen tokietan autoaren motorra itzaltzea gomendatzen dute normalean. Eredu horietan ezta edo suteak izan litezke txinparten ondorioz, eta horiek kalte pertsonalak eragin ditzakete, baita heriotza ere. Itzali telefonoa gasolina-zerbitzuguneetan (adibidez, zerbitzuguneetako hornigailuen ondoan). Errespetatu erregai-deposituetan, biltegitratzeko eta banatzeko eremuetan, instalazio kimikoetan eta leherketa-eremuetan irrati-ekipoak erabiltzeko dauden murrizketak. Leherketak gerta daitezkeen guneak argi eta garbi adierazita daude sarritan, baina ez beti. Horietako batzuk hauek dira: itsasontzietako kubiortak, produktu kimikoak biltegitratu eta garraiatzeko instalazioak eta airean partikulak edo elementu kimikoak dauden eremuak (adibidez, pikorra, hautsa edo metalezko partikulak).

Egiaztatu petrolio-gas likidotua (propanoa edo butanoa, adibidez) erabiltzen duten ibilgailuen fabrikatzaileei gailua ibilgailutik gertu modu seguruan erabil daitekeen edo ez.

■ Larrialdi-deiak



Garrantzitsua: telefono mugikorrak, hau barne, irrati-seinaleekin, haririk gabeko eta lurreko sareekin eta erabiltzaileak programatutako funtzioekin ibiltzen dira. Horregatik, ezin daiteke bermatu konexioek egoera guztietan funtzionatuko dutenik. Ez egon inoiz gailu mugikor baten baitan komunikazio garrantzitsuetarako (larrialdi medikoetarako adibidez).

Larrialdi-deia egiteko:

1. Telefonoa piztuta ez badago, piztu. Egiaztatu seinale-intentsitatea egokia dela.
Zenbait sarek telefonoan baliozko SIM txartel bat jartzeko eska dezakete.
2. Sakatu deiak amaitzeko tekla behar adina aldiz, pantaila ezabatu eta telefonoa deitzeko prest jarri arte.

3. Markatu tokiko larrialdi-zenbakia. Larrialdi-zenbakiak aldatu egin daitezke herri batetik bestera.
4. Sakatu deitzeko tekla.

Zenbait funtzio aktibatuta badaude, agian desaktibatu egin beharko dituzu larrialdi-dei bat egin ahal izateko. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gidaliburu hau edo galdetu zure zerbitzu-hornitzaileari.

Larrialdi-dei bat egitean, eman beharrezkoa den informazio guztia ahalik eta zehatzen. Litekeena da zure telefono mugikorra izatea istripuaren lekuko komunikazio-bitarteko bakarra. Ez eten deia horretarako baimena ematen dizuten arte.

■ Absortzio Espezifikoaren Tasaren (SAR) ziurtagiria.

Irrati-maiztasunaren eraginpean egoteari buruzko arauak betetzen ditu gailu mugikor honek.

Zure telefono mugikorra irrati-transmisorea eta irrati-hargailua da. Nazioarteko arauak gomendaturiko irrati-maiztasunaren energiarako esposizio-mugak ez gainditzeko diseinatuta dago. Direktiba horiek ICNIRP zientzia-erakunde independenteak sortu ditu eta pertsona ororen –adina eta osasun-egoera gorabehera– segurtasuna bermatzeko diseinatutako babes-tarteak dituzte. Telefono mugikorretarako esposizio estandarreko indizea Absortzio Espezifikoaren Tasa edo SAR izeneko unitatearekin neurtzen da. ICNIRP direktibetan ezarritako muga 2,0 watt/kilogramo (W/kg) da batez beste, giza ehunaren hamar gramoko. SAR probak funtzionamendu estandarreko posizioetan egiten dira, eta telefonoak berriz potentzia-maila ziurtatu handienera transmititzen du probaturiko frekuentzia-banda guzietan. Martxan dagoen gailu batean SAR unitatearen benetako maila gehieneko balioetik beherakoa izan daiteke; izan ere, gailua diseinatuta dago sarearekin konektatzeko behar adina indar izateko bakarrik.

Zenbateko hori aldatu egin daiteke hainbat faktoreren arabera, adibidez, sarearen oinarritzko estazio batekiko hurbiltasuna. ICNIRP arauen arabera, hau da gailua belarran erabiltzeko SAR unitatearen baliorik handiena: 0,97 W/kg. Gailuarentzat beste osagarri eta ekipamenduak erabiltzen badira, beste SAR balio batzuk izan daitezke. Absortzio espezifikoaren tasaren balioak (SAR) estatu bakoitzeko proba-eskakizunen eta informazioaren eta sarearen bandaren arabekoak dira. SARi buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus produktuari buruzko informazioa helbide honetan: www.nokia.com.

